



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2012IPLE0006

**Eguna:** 2012-07-12

**Ordua:** 19:00 -19:50

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

#### Bertaratu ez direnak

- Agin Rezola Laburu	BILDU
----------------------	-------

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
2012ko apirilaren 26 eta maiatzaren 31ko aktak onartzea	1	Aprobación de las actas de 26 de abril y 31 de mayo de 2012
2011ko Kontu Orokorra onartzea	2	Aprobación de la Cuenta General 2011
1-2012 kreditu gehigarria behin betiko onartzea	3.1.	Aprobación definitiva del crédito adicional 1-2012
Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen	3.2.	Rotonda calle Pelotari y Donostia Ibilbidea.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

<b>bidegurutzea. Hitzarmena onartzea</b>		Aprobación convenio
<b>1-2012 kreditu transferentzia hasieraz onartzea</b>	<b>4</b>	Aprobación inicial transferencia de crédito 1-2012
<b>Diruzainaren izendapen Dekretua berrestea</b>	<b>5</b>	Ratificación Decreto de nombramiento de tesorera
<b>Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen arteko bidegurutzean biribilgune berriaren obra behin behinean esleitzea</b>	<b>6</b>	Aprobación provisional adjudicación obra nueva rotonda en el cruce entre la calle Pelotari y Donostia Ibilbidea
<b>Ergobiako –Herrero- 2.2 HJU eremuaren xehetasun azterlana behin betiko onartzea</b>	<b>7</b>	Aprobación definitiva estudio de detalle de la UEU 2.2 – Herrero- en Ergobia
<b>Sociedad Financiera y Minera, S.A. eta Cementos Rezola. Hitzarmena garatu</b>	<b>8</b>	Sociedad Financiera y Minera, S.A. y Cementos Rezola. Ejecución de convenio
<b>San Marko Mankomunitatearekin sinatzeko hitzarmena</b>	<b>9</b>	Convenio a suscribir con la Mancomunidad de San Marcos
<b>Lokalen gutxieneko altuera librearen mugak egokitu eta aldatzeko Udal Ordenantza behin betirako onartzea</b>	<b>10</b>	Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal para el ajuste y modificación de los límites de altura mínima libre en locales
<b>Kale izendegiaren aldaketa</b>	<b>11</b>	Modificación callejero
<b>EAJ-PNV taldearen mozioa</b>	<b>12</b>	Moción EAJ-PNV

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1. 2012ko apirilaren 26 eta maiatzaren 31ko aktak onartzea

2012ko apirilaren 26ko akta: Akta aho batez onartu da.

2012ko maiatzaren 31ko akta: Zorione Etxezarraga zinegotziak proposatu du bere mintzaldian honako hau jasotzea: 5. puntu 1. puntuarekin kontraesanean dagoela eta adierazitako guztiagatik, kontrako botoa emango dutela.

#### 1. Aprobación de las actas de 26 de abril y 31 de mayo de 2012

Acta de 26 de abril de 2012: Se aprueba el acta por unanimidad.

Acta de 31 de mayo de 2012: La concejal Zorione Etxezarraga propone que en su intervención se incluya: que el punto 5 está en contradicción con el punto 1 y que por todo lo manifestado van a votar en contra



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Aurreko zehaztapenarekin akta aho batez onartu da.

Con la matización precitada se aprueba el acta por unanimidad.

### **2. 2011ko Kontu Orokorra onartzea**

Ogasun Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezen proposatzen da irizpen horretan:

1. 2011ko Kontu Orokorra onartzea.
2. 21/2003 Foru Arauak, 63.4 artikulua xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu orokorraren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berriaz ezarritakoaren arabera.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

### **2. Aprobación de la Cuenta General 2011**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Aprobar la Cuenta General 2011.
2. De conformidad con lo dispuesto en la N.F. 21/2003, en su artículo 63.4 el Ayuntamiento rendirá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada en los términos que establece su normativa específicamente.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad

### **3.1. 1-2012 kreditu gehigarria behin betiko onartzea**

Ogasun Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezen proposatzen da irizpen horretan:

- 1.- Kreditu-aldaketen espedientearen behin betiko onarpena, 1-2012 kreditu gehigarriko modalitatean, guztizko zenbatekoa 620.100,54 € izanik.
- 2.- 21/2003 Foru Arauen aurreikusitako ondorioz, G.A.Oean argitaratzea kapituluka onarturiko espedientea.

### **3.1. Aprobación definitiva del crédito adicional 1-2012**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

- 1.- Proceder a la aprobación definitiva del expediente de modificación de crédito en su modalidad de crédito adicional 1-2012, por importe de 620.100,54 €.
- 2.- Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003 proceder a la publicación en el B.O.G. del resumen por capítulos del expediente aprobado.

### **3.2. Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen bidegurutzea.**

### **3.2. Rotonda calle Pelotari y Donostia Ibilbidea. Aprobación convenio**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### Hitzarmena onartzea

3.-Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Pelotari Kalearen eta Donosti pasealekuaren arteko bidegurutzearen obra finantzatzeko hitzarmenaren onarpena.

3.-Proceder a la aprobación del Convenio a suscribir con la Diputación Foral de Gipuzkoa, para la financiación de la obra Nueva Glorieta en el cruce entre C/Pelotari y P<sup>o</sup> Donostia

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad

### 4. 1-2012 kreditu transferentzia hasieraz onartzea

### 4. Aprobación inicial transferencia de crédito 1-2012

Ogasun Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- 1-2012ko kreditu transferentziaren espedienteari 58.956,40 €koa hasierako onarpena ematea.

1.- Proceder a la aprobación inicial de la transferencia de créditos 1-2012 por importe de 58.956,40 euros.

2.- Espedientea jendaurrean ezartzea 15 eguneko epean, argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, alegazioak edo erreklamazioak egin ahal izateko. Horrelakorik egiten ez bada, hasierako onarpen-erabakia behin betikoa bilakatuko da, beste akordiorik egin beharrik gabe.

2.- Someter el expediente a información pública por el plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación para formular alegaciones o reclamaciones. Caso de no formularse el acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad

### 5. Diruzainaren izendapen Dekretua berrestea

### 5. Ratificación Decreto de nombramiento de tesorera

Ogasun Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

horretan:

Udal honetako Axun Múgica Erquicia administrazio-funtzionarioa Udal honetako diruzain izendatzeko alkatetzaren 561/2012 dekretua onartzea.

Aprobación del decreto de alcaldía 561/2012, por el que se procede al nombramiento de tesorera de este Ayuntamiento a la funcionaria administrativa de este Ayuntamiento Axun Múgica Erquicia.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad

### **6. Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen arteko bidegurutzean biribilgune berriaren obra behin behinean esleitzea**

Kontratazio Mahaiaren irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

LEHENA.- Pelotari kalea eta Donostia Ibilbidearen arteko bidegurutzean biribilgune berria egiteko proiektuaren obrako 1. fasea CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresari esleitzea 571.013,09 eurotan (BEZ barne), punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 67 puntu.

BIGARRENA.- Behin behineko esleipen hau jakinarazi eta 15 laneguneko epean ez bada errekurtsorik tartekatzen, erabakia hau behin betirako bihurtuko da. Epe hau igaro ondoren esleidunak behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinarazi eta behin behinean jarritako bermeak eta dokumentazioa itzultzea.

### **6. Aprobación provisional adjudicación obra nueva rotonda en el cruce entre la calle Pelotari y Donostia Ibilbidea**

Se remite para su aprobación el dictamen de la Mesa de Contratación proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

PRIMERA.- Proponer la adjudicación provisional de la obra de ejecución de la primera fase del proyecto de nueva rotonda en el cruce entre la calle Pelotari y Donostia Ibilbidea a la empresa CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. por 571.013,09 euros (IVA incluido), ya que es la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en el presente concurso, al obtener 67 puntos.

SEGUNDA.- Si no media recurso, esta adjudicación provisional devengará en definitiva en el plazo de 15 días hábiles contados desde el día siguiente al de su notificación, plazo tras el cual los adjudicatarios deberán presentar el aval definitivo y la acreditación de estar al corriente en los pagos con Hacienda y la Seguridad Social.

TERCERA.- Notificar a los interesados este acuerdo y proceder a la devolución de todas las fianzas provisionales y la documentación presentada.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

### 7. Ergobiako –Herrero- 2.2 HJU eremuaren xehetasun azterlana behin betiko onartzea

### 7. Aprobación definitiva estudio de detalle de la UEU 2.2 –Herrero- en Ergobia

Hirigintza Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

**Lehena.-** Goizuetako Etxeak, S.L.k aurkeztutako HEA 2 –Ergobia Auzo-areako HJU 2.2 –Herrero- eremuko Xehetasun Azterlanari behin betiko onarpena ematea.

**Primero.-** Aprobar –con carácter definitivo- el Estudio de Detalle presentado por Goizuetako Etxeak, S.L. para la U.E.U. 2.2 “Herrero del A.I.U. 2 “Ergobia Auzoa”.

**Bigarrena.-** Goizuetako Etxeak, S.L.ri hartutako erabakien berri ematea eta GAOn iragarkia ezartzea.

**Segundo.-** notificar a Goizuetako Etxeak, S.L. el acuerdo adoptado y publicar anuncio en el B.O.G.

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

### 8. Sociedad Financiera y Minera, S.A. eta Cementos Rezola. Hitzarmena garatu

### 8. Sociedad Financiera y Minera, S.A. y Cementos Rezola. Ejecución de convenio

Hirigintza Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

**Lehena.-** Sociedad Financiera y Minera, SA eta Cementos Rezola erakundeekin 2008ko urtarrilaren 10ean egindako hirigintza-hitzarmena egikaritzeko akordioa onartzea.

**Primero.-** Aprobar el acuerdo para la ejecución del convenio urbanístico celebrado con la Sociedad Financiera y Minera S.A y con Cementos Rezola, el 10 de enero de 2008.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

**Bigarrena.-** Aipatutako akordioa **Segundo.-** Publicar el texto íntegro del Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean referido acuerdo en el Boletín Oficial de argitaratzea eta argitaratzen denetik hogei Gipuzkoa, para la apertura de un período eguneko epea ezartzea jendaurrean de información pública y presentación de erakusgai jartzeko eta alegazioak alegaciones en un plazo de veinte días, a aurkezteko. Era berean zehaztea, izapide partir de dicha publicación; determinando hori amaitu eta alegaziorik ez badago, que en caso de concluir el referido trámite hitzarmena behin betiko onartutzat hartu sin alegaciones devendrá definitivamente eta izenpetuko dela edo bestela, aprobado el convenio, y se procederá a su aurkeztutako alegazioen arabera ebatziko dela. firma, y, en caso contrario, se resolverá sobre las alegaciones presentadas.

**Hirugarrena.-** Astigarraga Lantzen, SA **Tercero.-** Encomendar a la Sociedad sozietate publikoari agintzea trukea pública Astigarraga Lantzen S.A, la formalizatzea eta gauzatzea, 2008ko formalización y materialización de la urtarrilaren 10eko hitzarmenean permuta dando cumplimiento a lo acordado erabakitakoa betez. en el convenio de fecha 10 de enero de 2008.

**Laugarrena.-** Baimena ematea alkate **Cuarto.-** Autorizar al señor Alcalde la jaunari hartutako erabakia betetzeko formalización de los documentos beharrezkoak diren dokumentuak necesarios para el cumplimiento del formalizatzeko. acuerdo adoptado.

**Bosgarrena.-** Akordio horren berri ematea **Quinto.-** Notificar el presente acuerdo a las Sociedad Financiera y Minera, SA mercantiles Sociedad Financiera y Minera (Cementos Rezola) eta Hormigones y S.A (Cementos Rezola) y Hormigones y Minas, SA merkataritza-sozietateei. Minas S.A.

Idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du Interviene el secretario señalando que en irizpen horri dagokionez, ondasun-trukatze relación al presente dictamen el convenio bat egikaritzea aurreikusten duela, eta urbanístico, prevee la ejecución de una ondasun-trukatze horren jabeetako bat ez permuta de bienes en la que uno de los da Astigarragako Udala, Astigarraga propietarios no es el Ayuntamiento sino Astigarraga Lantzen SA baizik, eta horrenbestez, Astigarraga Lantzen SA, de modo que la kudeaketa agintzeko, sozietate horrek encomienda de gestión a Astigarraga Lantzen SA, implica que será dicha gauzatu beharko du gaur udalbatzaren sociedad la que materialice el Convenio eraginpean jarritako Hitzarmena. que se somete hoy al pleno. La ejecución Astigarraga Lantzen SA sozietateak del convenio por Astigarraga Lantzen SA, ezinbestezkoak izango dira, besteak beste: requerirá, entre otros:

1.- Trukatze-espedientearen aurretiko 1.- La previa instrucción de expediente de instrukzioa. permuta.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

2.- Perituaren balioespenean, ziurtatuko da trukatzeko diren ondasunen arteko balio-aldea (156.681€) honako hau dela: 1994. urtean eskatutako lizentzia ez lortzeagatik enpresak jaso ez duen mozkinaren balioa, perizialki kalkulatu dena.

3.- Astigarraga Lantzen SA sozietateak trukatzeko gauzatuko du, baina horretarako, ezinbestean onartu beharko da aurretiaz trukatzeko ahalbidetzen duen hirigintza-hitzarmena.

4.- Azkenik, aipatu du 1372/1986 Errege Dekretuaren 114. artikuluan xedatutakoari jarraiki, udalbatzaren eraginpeko onespenez akordiorako gehiengo absolutua lortu behar dela,

2.- Se acreditará en la valoración pericial que la diferencia de valor( 156.681€) entre los bienes que se permutan dicho valor es el estimado pericialmente del beneficio dejado de percibir por la empresa por no haber obtenido la licencia solicitada en el año 1994.

3.- La materialización de la permuta por Astigarraga Lantzen SA, quedará condicionada a la previa aprobación definitiva del convenio urbanístico que da origen a la permuta.

4.- Finalmente reseña que conforme a lo dispuesto en el art.114 del RD1372/1986, el acuerdo de aprobación que se somete al pleno requiere acuerdo de mayoría absoluta,

Bozketan egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

Zorione Etxezarraga zinegotziak pozik dagoela adierazi du hitzarmena gauzatuko delako, eta 3 urte daudelako egikaritzeko; bestalde, harriz dagoela esan du, Zakurmendegi eraginpean hartzen zuten antzeko beste zenbait eragiketatan Mundarro klubak objektioak agertu zituelako baina oraino ez duela objektiorik agertu.

La concejal Zorione Etxezarraga manifiesta la satisfacción dado que se va a materializar el convenio, y hay 3 años para ejecutarlo; manifiesta su sorpresa cuando en operaciones similares que afectaban a Zakurmendegi el club Mundarro manifestó objeciones y ahora no se ha formulado ninguna.

### 9. San Marko Mankomunitatearekin sinatzeko hitzarmena

### 9. Convenio a suscribir con la Mancomunidad de San Marcos

Hirigintza Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezkeen proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehenengoa.- Ateza teko sistemaren bidez bil ahal izateko, hiri hondakinen ontzi arina keta papera eta kartoi zatien gaikako bilketan aginpideak onartzea. Orain arte aginpide horiek mankomunitateak onartzen

Primero.- Para posibilitar la recogida puerta a puerta, adoptar competencias sobre la recogida selectiva de envases ligeros, papel y cartón. Hasta la fecha, dichas competencias las adopta la





## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

ditu.

mancomunidad.

Bigarrenena.- Ontzi arinen Kudeaketa Sistema Integralean (KSI) Astigarraga hondakinen bilketa-unitatetzat jotzea Ecoembesetik ontzia keta papera/kartoia gaik abiltzeagatik zuzenean ordain ekonomikoa jaso ahal izateko.

Segundo.- Dentro del Sistema Integral de Gestión de (SIG) Envases Ligeros, considerar Astigarraga como unidad de recogida de residuos para que pueda percibir directamente de Ecombes una compensación económica por la recogida selectiva de envases ligeros y papel/cartón.

Hirugarrena.- Alkateari ahalmenak ematea dagozkion dokumentuak sinatzeko.

Tercero.- Habilitar al Alcalde para la firma de los correspondientes documentos.

Zorione Etxezarraga zinegotziak hartu du hitza, proposaturiko hitzarmena interesatua dela eta eskumen guztiak biltzen ez direla adierazi du.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga que el convenio que se propone es interesado y que se recogen unas competencias pero no todas.

Alkateak erantzun dio etxez etxeko bilketa egiteko behar diren eskumenak jasotzen direla.

El alcalde contesta que se recogen las competencias que se requieren para llevar a cabo la recogida puerta a puerta.

Irizpena bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko 6 botorekin (Bildu) eta kontrako 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2), hots, gainerako zinegotzienekin.

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 6 votos a favor de Bildu y 4 votos en contra del resto de concejales(2 EAJ/PNV, 2 H1).

### **10. Lokalen gutxieneko altuera librearen mugak egokitu eta aldatzeko Udal Ordenantza behin betirako onartzea**

Hirigintza Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

Lehenengoa.- Goizuetako Etxeak, S.L. izenean aurkeztutako irazokizuna ezezteak, udal arkitektoak 2012ko uztailaren 5eko datarekin egindako txosten teknikoaren arabera.

Bigarrenena.- Astigarragako Lokalen Gutxieneko Azken Altuera Librearen Muga

### **10. Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal para el ajuste y modificación de los límites de altura mínima libre en locales**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Desestimar la alegación presentada por Goizuetako Etxeak, S.L., en base a las consideraciones expresadas en el informe técnico del arquitecto municipal de fecha 5 de julio de 2012.

Segundo.- Aprobar con carácter definitivo



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

keta Aprobetxamendua Konputatzeko Hirigintza Araudiko Parametroak Egokitzeko eta Aldatzeko Udal Ordenantza behin betiko izaeraz onartzea.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du kontrako botoa emango duela, ondoriozko ordenantza oso murriztailea delako.

Irizpena bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko 6 botorekin (Bildu) eta kontrako 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2), hots, gainerako zinegotzienekin.

la Ordenanza municipal para el ajuste y modificación de los límites de altura mínima libre final en locales y parámetros de cómputo de aprovechamiento en la normativa urbanística.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga quien señala que van a votar en contra dado que la ordenanza resultante es muy restrictiva.

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 6 votos a favor de Bildu y 4 votos en contra del resto de concejales(2 EAJ/PNV, 2 H1)

### **11. Kale izendegiaren aldaketa**

Obra Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

Urumea ibaian kokaturiko errumaniarren 2 establezimenduei Txalaka pasealekuko 20. eta 22. zenbakiak ematea.

Irizpena bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko 6 botorekin (Bildu) eta 4 abstentzio-botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2), hots, gainerako zinegotzienekin.

### **11. Modificación callejero**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Asignar los números 20 y 22 de Txalaka pasalekua a los 2 asentamientos de rumanos ubicados junto al río Urumea.

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 6 votos a favor de Bildu y 4 votos de abstención del resto de concejales(2 EAJ/PNV, 2 H1)

### **12. EAJ-PNV taldearen mozioa**

Zorione Etxezarraga zinegotziak EAJ/PNV alderdiaren mozioa aurkeztu du, honako erabaki hauek hartzea proposatuz:

Astigarragan kokaturiko harrobi eta meategi guztiak (halakorik dagoen kasuan), erauzketa-jarduerak ote dituzten alde batera utzita, "egonkorturiko hondakinen fardoen biltegi kontrolatu"

### **12. Moción EAJ-PNV**

La concejal Zorione Etxezarraga presenta la moción de EAJ/PNV, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Declarar todas y cada una de las canteras y minas (si las hubiera) situadas en el municipio de Astigarraga, con actividades de extracción, ó no, no susceptibles de ser utilizadas como "Depósitos controlado de balas de



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

gisa" ezin izango direla erabili residuos estabilizados".  
deklaratzea.

Lurralde Plan Sektorialari dagozkion alegazio guztiak –udalerrian dauden harrobi eta meategi guztiak txertatu nahi dituztenak– prestatzea eta aurkeztea, Astigarragan hondakinak ez isurtzeko edo lurperatzeko.

Preparar y presentar todas aquellas alegaciones oportunas al Plan Territorial Sectorial que quisiera incluir a todas las cantera y minas existentes en el término municipal con el objetivo de evitar el vertido y enterramiento de residuos en Astigarraga.

Zorione zinegotziak adierazi du Aldundiak gauzatu nahi duen proposamena ez dela zuzena, eta ez datozela bat, hondakinen fardoen biltegiak lixibatuak ere sortuko dituztelako eta horrenbestez, baita beste hainbat arazo ere, eta beraz, ez daudela ados harrobi eta meategiak horretarako erabiltzearekin.

Señala la concejal Zorione que la propuesta que desea llevar a cabo la Diputación no es correcta, y no están de acuerdo, dado que el depósitos de balas de residuos generarán también lixiviados y generarán más problemas, por lo que no están de acuerdo con utilizar las canteras y minas para ese fin.

Alkateak hartu du hitza, eta Aldundiaren proposamenaren alde dagoela adierazi du, eta jarduerarik gabeko zenbait harrobi horretarako erabil litezkeela, betiere dagozkion lizentziak eta baimenak lortzen badira.

Interviene el alcalde manifestando la postura favorable a la propuesta de Diputación, algunas canteras sin actividad pudieran utilizarse a tal fin, siempre previa obtención de las licencias y permisos correspondientes.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak hartu du hitza, eta Alduncin diputatua gaitzetsi izanagatik zoriondu ditu EAJ/PNV eta PSE-EE alderdiak.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga quien felicita a EAJ/PNV, y PSE-EE por haber reprobado al diputado Alduncin.

Mozioa bozkatu ondoren, baztertu egin da kontrako 6 botorekin (BILDU) eta aldeko 4 botorekin (EAJ/PNVko 2, H1eko 2), hots, gainerako zinegotzienekin.

Sometida a votación la moción es rechazada con 6 votos en contra de Bildu y 4 votos a favor del resto de concejales(2 EAJ/PNV, 2 H1)

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2012ko uztailaren 13an

**Xabin Olaizola Lasa**  
**Idazkaria**